



## **NAZIO BILTZARRAREN EBAZPENA**

Erreferentzia garrantzitsua da LABeko kideontzat otsailaren 19ko data. Euskal langileentzat bestelako eredu ekonomiko eta soziala eraikitzeko bide luzean aurrera urrats nabarmena eman genuen orain 16 urte. Nolako lan merkatua behar dugun, babes soziala nolakoa izan behar duen edota enpresa eta langileen arteko harremanak nola bideratuko ditugun bertan erabaki behar diren gaiak direla aldarrikatu genuen sindikatu abertzaleek, eta babes zabala jaso genuen euskal langileen artean. Milaka izan ziren Bilboko kaleetara lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua behar dugula aldarrikatzera atera zirenak.

Gaur da eguna aldarrikapen honi bizkarra ematen jarraitzen zaiona euskal instituzioetatik. Ardura instituzionalak dituzten edo izan dituzten alderdi abertzaleek entzungor egiten jarraitzen dute, eta benetako erabakigune bakarra Estatu delakoan aldarrikatzen dutenak erabat kontra ageri dira, Estatu ereduak ukitu ezina delakoan. Patronalek mehatxu gisa ikusten dute eskakizuna, langileok erabaki ekonomiko eta sozialetan benetan eragiteko gaitasuna edukitzeak euren erabateko nagusitasuna auzitan jarri dezakeelako.

Eta gaur da eguna, noski, krisia langileok ordaintzen ari garena, gauzak aldatu behar direla aldarrikatzeko aukera izanik ere, benetako aldaketak lortzeko ahalmena eta bitartekoak ukatzen zaizkigulako. Gauzak nola eta nortzuren artean erabakitzen diren, horrek baldintzatzen du hartutako erabakien nolakotasuna. Krisia sortu dutenak ari dira erabakitzen krisiari aurre nola egin, langileon iritziak eta aldarrikapenak aintzat hartu gabe, eta horrela, gure eskubideak izango dira berriro ere kaltetuak, behin eta berriro murriztuak.

Pentsio sisteman erreformak egiteko momentua iritsi delarik, kontratazio ereduaren edota negoziazio kolektiboan aldaketak burutzeraz doazela iragarri digute. Langileentzat funtsezkoak diren gaietan erabaki berriak hartuko dituzte, gure parte hartzerik gabe, gure borondatearen kontra eta berriro ere, gure kaltetan. Krisia gure eskubideen gainean atzerapauso berriak inposatzeko baliatuko dute, duela 16 urte Bilboko kaleetan milaka langilek egin eskakizunaren aurrean euskal instituzioek eta arduradun politikoek inolako urratsik eman ez dutenez, krisi honen aurrean ere benetako aldaketak burutzeko ahalmenik eta bitartekorik ez dugulako.

Ez dugu zalantzarik: krisiari sakoneko aldaketa politiko eta sozialak bultzatuz erantzun behar zaio. Kontrakotan tematzen dira baina, eta krisia sortu duten politikak ez aldatzea da hartu den benetako erabaki bakarra; hala, krisiaren ondorioak neurririk gabe zabaltzen eta larritzen ari dira. Horrela bada, langileok behar ditugun aldaketak lortzekotan, langileok bultzatu eta lortuko ditugu, edo gainerakoan, ez ditugu ikusiko.

Langileriak behar dituen aldaketa sozialak gure ekimenez finkatzea eta horien aldeko borroka indartzea da sindikatuok krisiari eman beharreko erantzuna, eta hori da, hain zuzen ere, Euskal Herrian jorratzen ari garen bidea. LABetik euskal gehiengo sindikala krisiaren aurrean ematen ari den erantzunaren garrantzia eta balioa azpimarratu nahi dugu beste behin ere. Ez dago aldaketa sozialak lortzeko bestelako biderik. Patronalek zuzentzen duten eta egungo instituzioen ezintasunera mugatzen den elkarrizketa sozialetik ez zaio inolako alternatibarik eskainiko langileriarik. Hilabateek aurrera egin ahala, bide horren antzutasunaren adierazle nagusiak dira elkarrizketa mahai horien emaitzak.

Nazio Biltzarrean erabaki dugu gehiengo sindikalaren dinamika indartzea eta elkarlan sindikalean urrats berriak eman ahal izateko lankidetzaren bideari lehentasuna ematea. Handiak dira elkarlana eremu gehiagotara zabaltzeko zailtasunak, ikuspegi desberdinak —bistakoak direnak— ditugulako ekintza sindikalean funtsezkoa diren arloetan. Dena dela, are eta handiagoak dira eman ditzakegun urratsak, desberdintasun horien gainean adostasunak eraikitzeke gai bagara. Horrela ulertuz sakonduko dugu LABetik gure azterketa eta hausnarketetan.

Aldaketa sozialen aldeko borrokan urrats berriak emateko aukerak ikusten ditugu, norabide horretan milaka langileren babes eta atxikimendua jaso dugu azken hilabeteetan. Hor kokatzen dugu gure erabakien erreferentzia nagusia, baina gaurkoan gure borrokan aurrera egiteko eztabaidan erreferentzia berri eta garrantzitsu bat ere badugu: aldaketa sozialak lortzeko aldaketa politikoak burutu behar direla ukazina delarik, kaleratu berri duen adierazpenarekin Batasunak bide horretan jauzi nabarmen eta eraginkorrak emateko aukera berriak sortu ditu, zalantzarik gabe.

Langileok behar ditugun aldaketa politikoak prozesu demokratiko baten bidez burutu behar direla genion urtarrilean LABeko delegatuen batzar nazionalean. Inposaketaren blokeoa herriari hitza eman ez soilik gairatu daitekeelako esaten dugu, baita prozesu demokratikoak ez duela alternatibarik ere. Hori da Euskal Herriak egin behar duen eta egin dezakeen bide bakarra ziklo politiko berri bat behin betikoz irekitzeko. Prozesu demokratikoa ez da bere kasa sortuko, gure esku dago bide horretan urratsak ematea. Are gehiago, gure ekimenez sortutako prozesua izango da, gure erabakietan oinarritutako eta garatutako prozesua.

Norabide horretan urrats handi eta garrantzitsua eman dela azpimarratu nahi dugu. Aldaketa politikoak gauzatzeko aliantzak, adostasunak, elkarguneak eta akordioak behar ditugu, eta ezinbestean, norberak hartzen dituen erabaki eta konpromisoak dira halakoetara iristeko abiapuntua. Erraza da arazoak konpontzen diren heinean konpromisoak hartzea Euskal Herriak behar duen konponbidearekin eta aldaketa politikoarekin. Ezker abertzaleak, ordea, arazoak gainditzeko eta gauzak konpontzeko hartu ditu bereak. Hori da azken hilabeteetan garatu eta burutu berri den eztabaidaren balio nagusia LABentzat.

Azkenik, balio osoa ematen diogu ezker abertzalearen eztabaidaren ondorioz politika ezkertiarak egingo dituen alternatiba instituzional sendoa indar berriz berreskuratzeko egin apustuari. Langileok politika ekonomiko eta sozialak aldatzea behar dugu, instituzioak langileen mesedetan jartzeko helburu tinkoa izango duen eskaintza politiko behar dugu. Lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparruaren aldeko borroka instituzioetara eramane eta bertatik apustu hori bultzatuko duten herri ordezkariak behar ditugu. Gaurko instituzioek dituzten mugen jakitun gara; sakoneko aldaketak burutzeko borroka instituzionala aldaketa politiko eta sozialak lortzea helburu duen estrategia politiko oso baten baitakoa izan behar da.

Urte luzeetan egin dugun borroka sortu ditu benetako aldaketa politiko eta sozialak lortzeko aukerak, borroka horretan erabaki eta indar berriekin aurrera egiteak ekarriko ditu behar beharrezkoak ditugun aldaketa horiek. Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarren eskutik eraikitzeke aukera berriak sortzen ari dira une honetan, eta euskal langilerari dei egiten diogu bide horretan parte hartzera eta gaur arte erakutsitako gaitasunarekin borroka egitera.

**Donostian, 2010eko otsailaren 19an**